





LOREAK ETA ETXE INGURUAK

2025

ttipi-ttapa | 875 zk. | 2025-04-10



Lorategiak eta etxe inguruak



Zaindu maite duzun hori

Etxeko txokorik gustukoena izaten da maiz kanpoalde. Balkoi ttiki bat zein lorategi erraldoi bat eduki, denok gustuko dugu kanpora ateratzea udaberriko lehen eguzki izpiekin. Hori dela eta, terraza txukundu, apaindu eta toki eroso bihurtzeko joera gero eta zabalago da. Izan ere, pandemiak zerbait erakutsi badigu, etxean eroso egotearen garrantzia da. Eta horretarako aukera ugari ditugu.

Batzuk nahiago dute lore koloretsu eta ederrez apaindu lorategia, bertze batzuk erlaxatzeko eta, zergatik ez, siesta egiteko lekua nahi dute, badi-ra hurrekin edo animaliekin jostatzeko espazioa nahiago dutenak, edo otorduak egiteko tokia dutenak go-goan... Zure aukera dena dela, eskualdean eskaintza zabala dugu etxeko kanpoaldean barnean bezain ongi egoteko.

ANTZUZELAI
S.L.

**HARGINTZA | FATXADAK
TXIMINIAK | ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK**



www.antzuzelai.com

BERA | T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com

**UDABERRIA
HELDU DA!**

JARDINERIE
ANIMALERIE **LAFITTE**

**Zuhaitzak eta
fruta arbolak
landatzeko garaia!**

Bertako barietateak,
hemen ekoiztuak.
Loreak, tresnak, loreontziak,
kanpoko altzariak, maskotak...

0033 5 59 42 24 42

www.drive.lafitte.net

jardinerie@lafitte.net

1945eko maiatzaren 8ko
etorbidea, 84 - 64100 BAIONA



lafitte.
jardinerie

«Gure lantaldeari esker 60. urteurrena ospatuko dugu aurten»

ESTIBALIZ ETXEBERRIA ALCO ALTZARIAK

50 urte baino gehiago dira kanpoko altzariak fabrikatzen dituztela Bera-ko Alco lantegian, «enplegua eta balioa sortuz gure komunitatean eta aire zabaleko aisialdietan lagunduz ingurumenarekin arduratsuak diren produktuekin». Izan ere, lorategi, hondartza eta kanpinerako altzariak ekoizten dituzte; «aulkiak, hozkailuak, kulunkak, mahaiaik...».

Ekainaren 5ean 60 urte beteko ditu enpresak, «pasioa, esfortzua eta lana uztartuz sortutako historia, giza talde haundi bati esker, bestela, ezinezkoa izanen litzateke». 58 bat langile dituzte gaur egun, «inguruko herrietatik etorritakoak: Bera, Igantzi, Lesaka, Doneztebe, Irun, Hondarribia...». Gainera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zigilua dute; «horrek esan nahi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukerak sustatzen ditugula, berdintasun plana dugula eta jokabide diskriminazionalen aurrean zero tolerantziako politika daukagula».

Kalitatea oinarri

Kalitatezko produktuak egiteko ezinbertzekoa da kalitatezko materialak erabiltzea, «eta hori dugu balio nagusietako bat». Bertzeak bertze, aluminioa, burdina, plastikoa, egurra



eta ehunak erabiltzen dituzte. «Urteak daramatzagu gure prozesu operatibo eta produktiboak etengabe hobetzen. Horri esker, produktu iraunkorrak lortzen ditugu modu eraginkorrean. Kalitate estandar zorrotzak ezartzen ditugu produktuek gure bezeroen itxaropenak betetzen dituztela bermatzeko».

Ekoizten dituzten altzarien artean, «hondartza aulkia da gehien saltzen denetako bat». Baina helduentzako ez ezik, haurrentzako ere eskaintza zabala dute; «mahaiaik, aulkiak, kulunkak... etxeko ttikienak ere bere moduan gozatzen hazi daitezten». —>

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
HARRI LAN, S.L.

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

STIHL

BATERIA BETE-BETEAN UDABERRI HONETAN

ONENA BILATZEN DUTENENTZAT

ZURE STIHL DENDA ESPEZIALIZATUAN

BIGARREN BATERIA BAT DOHAINIK
HAUTATUTAKO MODELOETAN

AURREZTU **489 €** ARTE

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinak
salmenta eta konponketa

Auzolan, 16 Irun | 943 627 331 |
agribidasoa@gmail.com

Baratzezaintza, Lorezaintza eta Abeltzaintza, Albaitaritza produktuak, Maskotentzako osagarriak, Ehiza eta arrantza.

PRESTATU ZURE BARATZA ETA LORATEGIA **GURE SASOIKO LANDAREEKIN**



DANTXARINEA - 34 848 463 194



LUZAIDE - 34 948 790 070





TXIRULA LORE DENDA

- Lorategiak apaintzeko loreak eta dekorazioak
- Etxeak apaintzeko osagaiak
- Lore sortak
- Udaberri eta udako arropa eta osagaiak.

Iturmuntubiko plaza 11, Lesaka
 948 627 542 - 722748836

«Kalitatea, iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua». Horiek dira Alcoko produktuen bereizgarri nagusiak. Gainera, «erabilera eroso eta funtzionalitatea bermatzen ditugu, bezeroen beharrei erantzuten saiatuz. Produktuak Beran fabrikatzen dira, pertsona talde konprometitu, arduratsu eta hurbil baten eskutik, bere ahalegin eta jakintza guztia jartzen duena». Eta Europako 19 herrialdetan saltzen dituzte produktu horiek.

Etorkizunera begira ere, «Europako erreferente izaten segitzea eta zerbitzu bikaina eskaintzea da gure ikuspegia. Hondartzan, kanpin batean, karabanan, zure etxeko lorategian edo zuk aukeratutako lekuan gozatzea, hori da gure lana».

Azkenik, «aukera hau aprobetxatu nahiko nuke Alco osatzen duten pertsona guztiei aipamen berezia egiteko eta beren dedikazioa eta ahaleginak eskertzeko, aurren 60. urteurrena beteko baitugu».



HONDARTZA, KANPIN ETA LORATEGIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA!

Bertan egindako produktuak

Bila gaitzazu konfiantzazko bazar edo hipermerkatuan!



Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31780 - BERA - Nafarroa
 Tel.: +34 948 628 200 - FAX: +34 948 630 804
alco@alcoplas.com | www.alcoplas.com

Barbakoa denboraldirako presta zaitez

**Metatu %10 zure
fideltasun txartelean**



Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia:

9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

www.venta-peio.com

☎ FR. +33 9 72 10 40 20

☎ ES. +34 948 625 130



ZURE LORATEGI ETA TERRAZARAKO NAHI DUZUN GUZTIA ALKAINEN DAGO.

Hemen aurkituko duzu **zure etxebizitzaren kanpoaldea** bikain jartzeko behar duzun guztia: soropil artifiziala, konposite edo zeramikazko lurzorua, leihoak, itxiturak, ezkutatzeko hesiak, lorategirako tresnak, igerilekuen tratamendua, itzalkinak, barbakoak, altzariak, brikolajea egiteko tresnak eta materialak...

Dena leku bakar batean eta aholkularitza profesional onenarekin.





Soropil
artifiziala



Lorategirako
tresnak



Itxiturak




Ezkutatzeko
hesiak



Konposite
lurzorua



Igerilekuen
tratamendua



ALKAIN

zure etxean pentsatzen
piensa en tu casa

ALKAIN HONDARRIBIA

Amutalde kalea, 17 - 20280 Hondarribia

T. +34 943 642 025

ALKAIN ASTIGARRAGA

Txalaka Pasealekua, 23 - 20115 Astigarraga

T.+34 943 642 025

alkain.com





Loreak eta landareak
 Ongarriak
 Oiloak eta oilaskoak
 Animalientzako
 eta maskotentzako pentsuak



Astelehenetik ortzirralera:
 09:00-13:00/16:00-19:30
 Larunbatak: 09:00-13:00
 Igandeak: 10:00-12:00
 Otsango auzoa · LESAKA
 T. 948 637 826

«Bezeroari laguntzeko produktua ezagutzea da garrantzitsuen»

JON APEZTEGIA APEZTEGUIA BERRIA BURDINDEGIA



100 urte baino gehiagoko ibilbidea du Doneztebeko Apezteguia burdindegia. Jon Apeztegiak azaldu duenez, «Hilaria, attaren amatxi, hasi zen dendarekin. Baina orduan ez zen burdindegia bat, janari denda bat baizik, eta gauza gehiago ere saltzen zituen. Merkatarien karrikan zegoen, gaur egun Irrintzi ostatua eta Marta ileapaindegia dauden lekuan. Hilaria Joxe Arotzarekin ezkondu zen, gizon nahiko famatua zena, eta gaur egun oraindik adineko pertsona ugari gogoratzen dutena. Albaitari lanak egiten zituen, nahiz eta albaitaria ez

izan, eta bezero eta bizilagun guzietan laguntzen zien animaliekin. Haien ondotik Bautista semea izan zen dendaren nagusia, baina gazte hil zenez, anaiak hartu zuen ardura, gure atar txik. Ignacio pertsona alaia eta jatorra zen, eta janari artikulua alde batera utziz, burdindegia artikulua gehiago saltzen hasi zen. Gero bere bi semeak hasi ziren lanean, Juan Ignacio eta Jose Antonio (Koteto), eta beraiekin Elizagibela karrikara mugitu zuten, gaur egun Suma dagoen tokira. 2008an kokapen definitibora lekualdatu genuen denda, Leitzako errepidean». →

ITURRI

SINCE 1929

Kanpoaldeko baldosak
 # Zelai artifiziala
 # Igeriluentzako Gresit-a
 # Harri naturala
 # Kanpoaldeko sukaldeak
 # Eta askoz gehiago

Zein da zure lekuri gogokoena?

IRUN | 943 633 188



AURTEN,
GURE BARBAKOARIK
ARRAKASTATSUENA

545€ TAN
~~595€~~



ALMACO
Baztan

Barbakoak, labeak, soropil artifiziala,
itxiturak, dekorazio harriak,
lorategiko altzariak, etab...

**Zure lorategirako
behar duzun guztia
ALMACO Baztanen
aurkituko duzu!**



ALMACO Eraikuntzako materialak

Informazio eta aukera gehiago:
www.almacobaztan.com



📍 Errepide nagusia, Elizondo
☎ Tel. 948 580 104

GAMMA



Eskaintza zabala

Gauregun, «burdindegiekin erlazioa duten produktu gehienak ditugu eskuragarri: esku erremintak eta elektrikoak, silikonak, itsasgarriak, pinturak, hidrogarbigailuak, konpresoreak, elektrizitate artikulua, lanerako arropa... eta baita abeltzaintza, baratze eta lorategirako artikulua ere».

Izan ere, «toki berrian denda aunitzez ere haundiagoa da eta esposizio haundiagoa dugu. Horrek bezeroari laguntzen dio produktuak ikusten eta aukeratzen». Gainera, «biltegia ere haundiagoa dugu, horregatik, aunitzetan ez dugu eskaerarik egin beharrik eta bezeroak ez du esperatu beharrik artikulua ailegatu arte, hemen dugulako».

Jendeak «denetik» eskatzen du, «denboraldiaren arabera gauza batzuk edo berteak saltzen dira gehien». Horrez gain, «jende pila bat etortzen da aholku edo laguntza bila, zerbait egin nahi dutela eta ez dakitela nola.

Merkatuan dauden artikulua eza gutzea eta nola erabiltzen diren ikas-tea da gure lana, bezeroari ahalik eta hobekien bideratzeko. Haien beharrak betetzeko ideiarekin bat edo bi izaten ditugu beti. Gure ustez, hori da garrantzitsuena eta, gainera, pila bat gustatzen zaigu lan hori».

Baratzeari dagokionez, «tresnak, haziak, lurra, berdatea (tomateen xartexa kontrolatzeko)... ditugu. Horiekin ere ikasten eta informazio biltzen saiatzen gara, gero bezeroei aholkuak emateko. Adibidez, baratzean plaga bat baldin badute, produktu hoberena aurkitzen saiatzen gara. Batzuetan okertzen gara baino orduan guk ere ikasten dugu».

Etorkizunera begira, «dendarekin lanean segitzeko asmoa dugu. Donostian denda aunitz ixten ari dira jabeak erretiratzeko ari direlako baina hemen, momentuz, ez dugu problema hori. Kontent gaude ibilbide luze honekin segitzeaz eta jendea animatu nahi dugu bertan erostera!».



Apezteguia Berria
ferreteria - burdindegia

Baratzeko erreminta
Lorategiko erreminta
Haziak
Lore lurra
Loreontziak
Piszinak
Piszinarako artikulua

- Leitzako errepidea, 33 - 31740, DONEZTEBE -
- info@apezteguiaberria.com -
- 948 450 994 -



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA



Igerilekuko ura garbitzeko tenorea

Etxean igerileku bat edukitzeak mantentze lan haundia eskatzen du, batez ere urte osoan ongi estali gabe edukitzen badugu; uda ailegatu eta bainu bat hartzerako orduan, ur berde eta zikina aurkituko dugu. Baina lasai, ura bere kolorera bueltatzea posible da igerilekua hustu eta ur gehiago xahutu behar izan gabe.

Zergatik berdetu da ura?

Uran sortutako algek ematen diote kolore berdea igerilekuari, eta horretarako hainbat arrazoi izan daitezke: pH-aren desoreka, iragazkiaren funtzionamendu okerra, tenperatura altuegia, garbiketa eskasak egitea...

Algak zergatik sortu diren jakitea garrantzitsua da arazoa errazago konpontzeko eta etorkizunean berriz ere ez gertatzeko.

Nola garbitu behar da?

Inportantea da ura ahalik eta azkarren garbitzea algak ez ugartzeko, eta horretarako bi laguntzaile nagusi ditugu: kloroa eta algak kentzeko produktua.

Lehenik igerilekuko paretak ongi igurtzi behar dira algak bereizteko, eta azaleratzean sare batekin kendu. Zorua garbitzeko robota erabiltzea da onena. Aldi berean, garbiketa eta filtrazio sistema garbitu behar dira. Ondotik kloroa eta algak kentzeko produktua emanen diogu urari, eta malutatzailerik bat erabil dezakegu partikula txikiak iragazteko. Ordu batzuez iragazten utzi ondotik kolore garbia berreskuratuko duela ikusiko dugu. Azkenik, ura aztertu beharko dugu pH eta kloro maila neurtu eta orekatzeko. Eta hori da dena, orain denak uretara!

txukun
piscinasigerilekuak


**Sortu zure
ametsetako
igerilekua Txukun
Igerilekuekin!**

Neurrira egindako diseinuak

www.piscinastxukun.com



Belasko eraikina, 23 | IRUN
info@piscinastxukun.com
943 944 961
@txukunpiscinas



Toldos Irun



ESPAZIO ESTALIAK BEHAR DUZUN SISTEMA

Toldoen, pergola bioklimatikoan, gidaridun teknikoan eta kristalezko itxituren inguruan merkatuan dauden marka nagusiekin lan egiten dugu.



TOLDOAK



KRISTALEZKO
ITXITURAK



BARRENEKO
GORTINAK



TERRAZAKO
EGITURAK



ELTXO
SAREAK

www.toldosirun.com

ESKATU HITZORDUA ETA IKUSI GURE ERAKUSKETA:

Lope de Irigoyen, 12 - behe, 3 | IRUN

info@toldosirun.com | (+34) 943 639 989





Landare aromatikoak: zein eta nola landatu

Zaintzeko errazak, usain gozokoak eta lagungarriak sukaldean; landare aromatikoak aukera ezin hobeak dira, eta leku ttikia hartzen dutenez, edozein etxetarako aproposak. Bistan da landare batzuk bertzeak baino errazagoak direla hazteko, eta errazenen artean daude albaka, martorria, tipulina, perrexila, menda belarra, erromeroa, salbia, ezkaia, izpilikua, oreganoa, kamamila eta jengibrea. Gainera, udaberrian eta udan ere iteko bereziki aproposak dira.

Zainketa egokirako gakoak

Orokorrean, aromatikoek argi dezentetik behar dute, egunean sei ordu guttienez. Hala ere, leku beroetan, hosto finekoek (albakak adibidez) arratsaldeko eguzkiarekin sufritu egiten du, eta hobe da itzalpean paratzea ordu beroenetan.

Landarea hazteko aukeratzen dugun ontzia ere erabakigarria izan daiteke, baina orokorrean, loreontzi ttikiak aski dira, substratu litro bat edo birekin moldatzen baitira. Etxean leku haundirik ez badugu, lorategi bertikalak aukera ezin hobeak dira. Horrez gain, ontziak zuloak edukitzea eta drainatze ona segurtatzea ezinbertzekoa da, zainetan ur gehiegi edukitzeak kalte egiten dielako.

Loreontzi berean landare bat baino gehiago hazi nahi baditugu, kontuan izan behar dugu batzuk ur gehiago behar dutela; albaka, perrexila, martorria eta menda, adibidez, erromeroa, ezkaia, izpilikua eta salbia baino gehiago ureztatu behar dira. Hala ere, ez da komenigarria ur gehiegi ematea, izan ere, idorrango daudenean zapore eta usain biziagoa izaten dute. Oreak aurkitzea da gako!

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HÖRMANN banatzaile ofiziala




AROTEGIA:

- Burdina
- Aluminioa
- Inox

BALKOIAK

TOLDOAK

BURDINESIAK

FORJA

AUTOMATIZAZIOAK

...



Husqvarna

30

1995ETIK

Husqvarna Automower®

AUTOMOWER®

799 €

tik

HASITA




1995ETIK
MUNDUKO LIDERRA
BELARRA MOZTEKO ROBOTETAN

BANATZAILE OFIZIALA

BB BLOK BAT

TAILERRAK



UDABERRIKO ESKAINTZA GEHIAGO DENDAN

Eskaintza 2025/06/30 era arte.

Santiago,85 | ELIZONDO | 948 580 898

www.biokbat.com